

FAXISMORIK GABEKO AUZOAK

auzo ireki, solidario, eta libreak

2020an Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan gertatu zen bezala, **VOXek berriz ere gure auzoak aukeratu ditu hurrengo udal eta foru hauteskundeetan kanpainari hasiera emateko**: urtarrilaren 13an, ostirala, 18:00etan Doctor Fleming plazan (Cantalojas zubian).

Ez da kasualitatea gure auzoak aukeratu izana; izan ere, instituzioen utzikeria nabarmena jasan eta gizarte-bazterketa handia pairatzen dugu auzokideok: EAEko pobrezia-maila handienak hementxe izanik zerbitzu publikoak gutxitu eta okertu egiten baitira, etxebizitzarekin lotutako arazoak ugaritzen diren heinean, oinarritzko premiak asetzea gero eta zailago denean, eta arrazakeria poliziala eta instituzionala sofritu egiten dugun bitartean,...

Baina gure auzoak biziak eta antolatuak ere badira, egunez egun elkartasuna zabaldu eta elkarri laguntzeko harremanak eraikitzen ari baikara, erakundeen utzikeria salatuz eta, kasu honetan bezala, matxismoa, aporofobia, arrazakeria, homofobia edo transfobia bultzatzen duen edozein adierazpen faxistari aurre egingo diogu oraingo honetan ere.

Honegatik guztiagatik, **urtarrilaren 14an, larunbata, 11:00etan, Doctor Fleming Plazan garbitu eta desinfektatzeko auzolanera deitu nahi zaituztegu**: VOXen agerraldia eta ideologia honek ordezkatzeko duen guztia erabat arbuiatu, eta gure auzoak auzo ireki, solidario eta askeak ozen aldarrikatzeko.

Dirudienez, larunbat goiz horretan bertan, **egungo alkate Juan María Aburto ere San Frantzisko auzoan izango da**, kanpaina bereziari hasiera emateko. Oraingoan, kaleko obrak inauguratuko ditu, eta, Udal gisa hartutako konpromiso ia guztiak bezala, legegintzaldiaren amaiera aldera, hauteskundeetatik aste gutxira egingo du inongo lotsarik gabe. Eta **Zubirik** udal plana kalean aurkeztu berri du, sendotasunik eta helburu ebaluagarriarik gabe, auzokoen eta gizartearen parte-hartzeari uko eginik, eta, are larriagoa dena, ez ditu inolaz ere aldatuko gizarte-bazterketa eta bizilagunen bizitzaren kalitatea okertzea. Bere horretan dira baldintza ankerrek.

Horregatik, beste behin ere, **ozen salatu nahi dugu gure auzoek erabateko utzikeria instituzionala sufritzen jarraitzen dutena**: pobrezia eta gizarte-larrialdia gero eta handiagoak baitira gizarte-murrizketak eta zerbitzu publikoak okertzen ari diren bitartean.

Gure auzoetako arazo eta premiek benetan aurre egingo dien benetako plan integral eta instituzional bat behar dute ezinbestean, auzokideekin eta gure auzoetako kolektibo sozialen egiazko partaidetzarekin.

Neka-neka eginda gaude hainbeste udal utzikeriarekin, hainbeste hitz hutsekin eta hainbeste inaugurazio instituzional engainagarriekin, Udalak egoera hori aldatzeko duen ezintasuna eta borondate politikorik eza ezkutatzen dute eta.

VOX eta bere faxismoa gure auzoetatik kanpo nahi dugu, alkate jauna eta bere harrokeria eta konpromiso faltari esaten diogu ez dela ongi etorria, ez orain ez eta hurrengo udal hauteskundeetan ere.

ZABALA, SAN FRANTZISKO ETA BILBO

ZAHARREKO AUZOTARROK